 Jerardo Elortza
eta Xabier Zelaia

OÑATI >

KALERIK
-
KALE



Zubikoa

San Juan Kalea (I)

Foruen enparantzatik oso hurrean egonda ere, garrantzi berezia eta handia eduki izan du Oñatiko historian **errebal-auzo-kale** honek. Erdi Aroko dokumentuetan apenas aipatzen den, baina XVI. mendetik aurrera sarritan agertzen zaigu **Zubikoa** gisa. Izen hori Antzuelas eta Ubao errekek bat egiten duten tokian dagoen zubitik (estalia gaur egun) zetorkion; hau da, luzaroan plazako beheko aldetik eskumara igarotzeko gainditu behar zen zubitik. Plaza Nagusiari buruzko ataletan azaldu genizkizuen tarte horretan zeuden eraikuntza eta zerbitzuen gaineko xehetasun batzuk: jesuiten eliza, era askotako eskolak, udal harategia, merkatua eta abar; egungo Pago Uso elkarte, Gaztelekua eta San Migel parrokiako klaustroaren inguruan kokatzen zirenak, alegia. Dena den, **auzoari aparteko nortasuna** emango zioten beste hainbat eraikin ere jaso ziren han: **Santa Anako komentua** eta **San Migel errota**, adibidez.

SANTA ANA ZUBIKOA

Horrela deitzen zitzaion 1509an **Arantzazutik kalera jaitsi ziren lau serorek** erosi zuten etxeari. Emakume haiek San Frantziskoren Hirugarren Ordenakoak ziren, Arantzazun egondako lehen urteetan **Juana Arriaran** oñatiarra burutzat zeukatenak. Hura hiltzean, etorri ziren Zubikoara, gizaldi askotan iraun zuen komentuaren jatorrizko oinarriak ezartzera, **Martin Mendizabal**

frantziskotarrak Santa Anari buruzko historia-liburuan (2002) adierazten digunez.

Zubikoako egoitza horretan lau mende t'erdi baino gehiago bizi izan ziren mojak, 1982an Garagaltza auzoko etxe berrira aldatu ziren arte. Pentsa dezakezue, denbora-tarte hain luzean **aldaketa ugari gertatu zitzaizkien Santa Anakoei**: hasieran serora soilak zirenak **klausurako lekaimeak bihurtu** zitzaizkigun 1596an eliza-agintarien erabakiei men eginez; harrezkero, **izen eta mota desberdinekin agertzen dira historian zehar**, San Frantziskoren erregelaren barruan beti ere; eta eraikuntzak berak hamaika aldakuntza, eraberritze eta hobekuntza izan zituen komentuan nahiz elizan, herri barruan erreferente garrantzitsua bilakatu zelarik.

la etengabe egon ziren belaunaldi anitzetako mojak **Santa Anan. Salbuespen bakar eta laburra 1794-1795 bitartean** jazo zen. Frantziako Iraultzaren hasieran, konbentzio-gerra zela eta, tropa frantsesak Hego Euskal Herrian sartzean, komentuetako mojek leku seguruagora ihes egin zuten. Santa Anakoek hasieran **Arabako Barriara** jo zuten eta geroago **Errioxako Brionesera**. Baina Basileako bakea sinatutakoan, berehala itzuli ziren Oñatira. XIX. eta XX. gizaldietako gatazka eta gerretan ez ziren herritik atera, eta halakoetan inguruko beste komentu batzuetako emakume erlijiosoek topatu zuten babesa eta aterpea Santa Anan.



Santa Anako komentua 1980 inguruan.

Komentua handituz eta zabalduz joan zen, urteak igaro ahala. Obrarik nagusienak, agian, **XVII. mendean** zehar burutu ziren. Orduan gauzatu zituzten **eliza berria, atari arkuduna eta eraikinaren beste alderdi batzuk**. Garai hartako lekukoa dugu oraindik ikus dezakegun erretaula nagusia, Juan Sagües, Martin Zatarain eta Domingo Zatarainen lan aipagarria. **Santa Anak** osatzen zuen etxe-multzo galantak, kostata eta kanpotik behintzat, **gorde zuen nolabait bere itxura historikoa**, duela ia berrogei urte, Oñatiko udalak bereganatu ondoren, mojen egoitza izatetik beste erabilera batzuetara pasatu zenean.

Azkenaldian, dakizuenez, **eliza hainbat zereginetarako areto bihurtu da**: urte batzuetan zinema-emanaldietarako ere baliatu baldin bazen ere, aspalditxoan antzerki, kontzertu edota hitzaldietarako erabiltzen da batik bat. Komentuari zegokion alderdia zeharo hustu zen barrutik eta lokal horietan **Txantxiku ikastolaren zenbait ikasgela atondu ziren**. Eta mojen ortu-sail zabaletan, berriz, **Zubikoa izeneko udal kiroldegia jaso zen**, gaur egun herritar askoren aisia-leku eta ariketa-esparru garantzitsuenetakoa delarik.

SAN MIGEL ERROTA

San Juan kalearen izaera luzaroan markatu zuen beste toki inportante bat **San Migel errota** izan genuen. Orain turismo-bulegoa aurkitzen den inguru horretan aritu zen lanean gizaldi askotan. **Jabeak Oñatiko jauntxoak ziren**, hots, **Gebaratarrak**,



Oñatiko udal artxiboa

San Migel errota egondako lekua XX. mendearen hasieran.

baina hauen patronatukoa zen San Migel parrokiarekin ere lotura estua eduki zuen. Hortik etorriko zitzaion izena, noski. **Jose Antonio Azpiazu** eta **Juan Madariagaren Oñatiko San Migel errota** (2006) lanak argibide ugari eskaintzen digu gai honetaz.

Parrokiako **abadeek hitzarmen moduko bat egina zuten euren patroiarekin**: elizari eman beharreko **hamarrenak** (gari, garagar, arto eta gainontzeko laboreen % 10a) nahiz **fruituen lehen emaitzak** (sagar, gaztaina, intxaur eta abarrenak) **kondearekin partekatu beharra** zeukaten; eta gainera, kondepekoak ziren nekazariak Linantzibar edo San Migel errotetara eramane behar izaten zituzten ehotzera euren labore-aleak. Bi baldintza horiek **ikaragarrizko diru-kopurua** ziurtatzen zien Gebaratarrei, eta bide batez parrokiako kabildoari, lauhun baserritik gora zituen Oñatiko herrian.

Errota horri eragiteko **ura San Martin azpiko presa batetik** desbideratzen zen eta ehundaka metro zituen **malatu baten bitartez** iristen zen San Juan kaleraino. San Migel errotak 1899an bere lanari utzi eta gero ere, kanalaren azpiegitura mantendu egin zen, XX. gizaldiaren hasieran leku horretan ipini zuten aroztegi bateko turbina mugiarazteko. Guk geuk ezagutu genituen hantxe **aroztegia eta zerrategia** gerra osteko hamarkada askotan. Malatu horren aztarnak ere bistan egon ziren Bidebarrieta aldeko etxe-poligono berria eraiki zen arte. Ur hori, gainera, beste premia batzuk asetzeko ere aprobetxatu zen: esaterako, ibilbide luze horretan zeuden **baratze ugariak erregatzeko**, hainbat labadero eta puxeta-harritan **arropak garbitzeko**, baita **bainu-etxe txiki batzuk jartzeko** ere.

Errotaren eraikina **Santa Anako mojek erosi zuten 1905ean**, eta hainbat arotz eta zerrariri alokatu zien XX. mendean zehar. Oñatiko **udalak** Santa Anako komentuari batera samar **bereganatu zuen 1983an**; 1997an **eraitsi egin zuten etxebizitzak egiteko**; eta unibertsitatara begira dagoen beheko solairuan **turismo-bulegoaren egoitza berria kokatu zen**. Bertan, aztarna arkeologiko batzuk errespetatu eta leku desberdinetatik elementuak ekarri, **errota bat berreraiki zen oñatiar eta turisten ikusgai**.

Hauetaz gain, San Juan kalearen inguruan badira, jakina, beste gauza eta xehetasun interesgarri asko. Horietako batzuk azaltzen hurrengo atalean saiatuko gaitzaizkizue.

 **ETXiAN**
Inmobiliaria


Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu?

Tel.: 943 71 61 60
Mug.: 610 381 244
www.etxian.net
Etxian 

 **carpintería GARIBAI aroztegia**

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

 Jerardo Elortza
eta Xabier Zelaia



OÑATI >

KALERIK
-
KALE



Zubikoa

-

San Juan kalea (II)

Mendeetan zehar herriko gune nagusitik hain hurbil eta aldi berean hain urruti egon eta mantendu izan den auzo-kale honek badauzka, aurrekoan esandakoetatik aparte, beste ezaugarri aipagarri batzuk ere. Horra, ba, horietako batzuk.

KUARTELA

San Juan kalearen historian bada hain ezaguna ez den xehetasuna: zazpi bat urtean soldadu mordoxka baten **kuartela kokatu zela bertan**, alegia. XIX. mendearen bukaeran gertatu zen hori. Gerra ugari jasan behar izan zituen herriak gizaldi hartan. Azken karlistaldiko gatazka (1872-1876) amaitzear zegoela, **Emeterio Madinabeitia** Oñatiko alkate liberalak eta Baskongadetako kapitain jeneral **Jose Maria Lomak** hitzartu zuten herrian 700 bat soldadurentzako egonlekua jartzea.

Hartarako **arrazoiak** honako hauek izan zitezkeen: batetik, Oñati bezalako udalerrri garrantzitsu batean, gerra bukatuta gero ere, garaileen **ordenamendu berria bermatzeko** indar militarren premia egotea; eta bestetik, unibertsitatea, gorabehera askoren ondoren, berriro ixtean, udalerrriaren **diru-iturri inportante bat** nola edo hala ordezkatu beharra. Beraz, ironiko samarra baldin bada ere, **soldaduak estudianteen lekuan**, herriaren ekonomia larriari laguntzatxoren bat ekarriko ziotelakoan.

Horrenbestez, soldadu pila bat eta euren agintariak geratu zitzaizkigun Oñatin. Batzuk, **300en bat, unibertsitatean** moldatu ziren; **beste 400 inguru**, handik hurrean sartu zituzten, **San Juan kaleko bi etxetan**: gaur egungo 3. eta 5. zenbakietan, hots, gure garaiko **Otxuenean** eta **Kirriñenean**. Ondo tolestaturik egin beharko zuten lo. Egoera hark 1883ko azaroaren

amaiera arte iraun zuen, orduan atera baitziren soldaduak herritik. Dena den, ez zuten denek alde egin, orduko militarren ondorengo batzuk guk geuk ezagutu baititugu.

GAIXOTASUN KUTSAKORREN IKUSKARITZA-ETXEAK

Izenburu luze eta ilun samar horrek azalpen garbiagoa behar du, noski. Saia gaitezen, ba. Militarrek joan eta urte betera beste **arazo latz bat azaldu zitzaion udalari**: Frantziako Tolon-eko itsas portutik hedatutako **kolera morbo asiarrari aurre egin beharrean aurkitu ziren**, beste izurrite historiko askorekin bezala. Hasieran, 1884ko uztailan, kolera-kasuak gertatu ezker, halakoak isolatzeko eta artatzeko San Martin ermita erabiltzea erabaki zen.

Alabaina, gerora leku hobea bilatzeari ekin zioten. Hartarako, 1885ean, **San Juan kalean etxe bat egokitzea pentsatu zen**. Kalearen akaberan zegoen, eskuma aldetik. Gaitzak jotako



Oñatiko Historia eta Arte Bilduma

Inguru honetan kokatuko zen gaixotasun kutsakorrek ikuskatzeko etxea.

gaixoen ikuskaritzarako erabiliko zen, batik bat. Horrek, ordea, **auzotarren izua piztu zuen**, izurriak inguruko etxeetan izan zezakeen eraginagatik. Kezkatuenetakoa eta borrokalaria **Lucio Carrere izeneko eskola-maisua** genuen. Auzi eta joan-etorri ugari gertatu ziren hurrengo hilabeteetan, auzotarren, udalaren eta gobernadorearen artean.

San Juan kaleko biztanleei honako hauek agindu zitzaizkien: etxe hura ez zela erabiliko koleraz kutsatutako gaixoak **kuarentenan** edukitzeko, baizik eta **ikuskaritza-etxea izateko bakarrik**. Dena den, 1885. urte horretako azaroaren hondarreen amaitutzat jo zen koleraren arriskua, eta momentuz hala bukatu zen arazoa. Baina 1892ko abenduan **baztanga-izurritea** zabaldu zen, hots, hemen **astagorriña** gisa ezagutzen genuena.

Orduan ere, gaitz horrekin **kutsatutakoak artatzeko lekua San Juan kalean** eratzeko asmoa zuen udalak. Auzoko **bizilagun gehienek**, ordea, **alkatearengana jo zuten**, halakorik egin ez zezaten erregutuz. Eta oraingoan lortu zen auzotarren nahia gauzatzea, gaixoentzako toki hori une hartan hutsik zegoen unibertsitatean jarri baitzuten azkenean. **Halako premietarako**, gerotxoago jasoko zen paraje isolatuagoan, errekez bestaldetik, **Gorriñetxe izeneko eraikina**, XX. mendearen lehen hamarraldietako argazkietan ikus daitekeena.

KOLEGIOALDERAKO ZUBIA EDO PASABIDEA

San Juan kaletarrek betidanik aldarrikatu dute **Kolegialdera**, unibertsitate ingurura, **hurreratzeko pasabidea**, erreka gaine-



Oñatiko Historia eta Arte bilduma

Abere-hiltegi ondoko zubia, 1960 inguruan eraikia.

tik zeharkatuz. Mutikotan, ur gutxi zihoanean, harri gainetatik igarotzen ginen batetik bestera, sarritan uretan **bolante** egin eta bustidura majoa hartuz. Gure gazte denboran, 1950ko hamarkadaren amaieran eraiki zuen Udalak **burdinazko egitura zuen zurezko zubia**, orain dagoen hormigoizkoa moldatu arte mantendu zena.

Baina hori ez zen lehenengoa izan: **1840 inguruan zurezko egitura zuen behin-behineko zubi esekia (puente colgante)** jaso zuten auzoko sutegien jabeek eta beste partikular batzuek, eurek ordainduta; Udalak bi pieza nagusi eman zizkien herri basoetatik; eta 1846an **uraundi batzuek zubia erabiltezinik utzi** zuten, **konpontzeko laguntza eskatu** zuten auzotarrek. Udalaren iritziz, baina, partikular batzuek soilik baliatzen zuten zubia, ohiko bide publikoa (plazatik zehar) alde batera utziz, luzetxoagoa zelako aitzakian. **Kontzejuak** erantzun zien **ez zeukala eskumenik, komenientzia partikularreko obretan udal fondoak xahutzeko**. Egin zezakeen bakarra, bere basoetatik zubi eseki izango ziren bi pieza nagusiak udal basoetatik ematea zela, horretarako aurrez eskuratu zirenak hondatuta baldin bazeuden beti ere.

Zerbait egingo zuten, 1851. urtean 42 erreal ordaintzea erabaki baitzen, San Juan kaleko pontoia konpontzen egindako gastuengatik. Baina horrek ez zuen luzaroan iraun, eta ondoren **harriak jarri zituzten berriro**, errekatik zehar, abere-hiltegitik Kolegio Kalera joateko. Horiek mantentzea izan zen Udalaren lana aurrerantzean. 1886ko maiatzaren 13an 7,50 pezeta eman zituen pasabidea konpontzeko.

1891. urtean **pasabide hobea prestatzea eskatu zuten auzotarrek**, hartarako zeuden harriak urek estaltzen zituztelako. Udalak erantzun zien, herriak behar asko izanik, **ezin zuela eskaera onartu**. Auzotarrek 1899ko irailaren 2an berregin zuten toki horretan zubia jartzeko eskabidea. Hilaren 23an Udalak erantzun zien, bazekiela zegoen pasabidea baino egokiagoa zela zubia, baina ez zuen inolaz ere horren beharrik ikusten. Distantzia ia ez gutxitzeaz gain, plazatik joatea motza eta oso eroso omen zen, eta zubia eraikitzearen kostua handia. Beraz, zubirik ez egitea onartu zuen. **la hirurogei urte** itxaron behar izan zuten auzotarrek, **euren desioa bete ahal izateko**.

Konturatuko zineten, honezkero, San Juan kaleak, handia izan gabe, alor askotarako idazgaiak eskaintzen dituela. Hurrengo atalean garatuko ditugu horietako beste batzuk: etxe-izenak, lanbideak, abere-hiltegia, kale-baserriak, jaiak eta abar.

**ETXiAN**
Inmobiliaria


Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu?

Tel.: 943 71 61 60
Mug.: 610 381 244
www.etxian.net
Etxian 

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

 Jerardo Elortza
eta Xabier Zelaia



OÑATI

KALERIK
-
KALE



Zubikoa San Juan Kalea (III)

Azkenaldian aldakuntza nabariak izan dituen errebal, auzo eta kale berezi honen beste xehetasun batzuk ere azaldu gura dizkizuegu hirugarren atal honetan.

ABERE-HILTEGIA

1762. urtetik 1850. urtera arte abere-hiltegi-harategia plaza nagusian egon zen, gaur egun Foruen Enparantzako 9 zenbakiak okupatzen duen orubean. XIX. gizaldiaren erdi aldera, plaza birmoldatu zenean, arkupeak eta etxeak eraikitzeko hiltegi-harategia bota eta berria egin zuten, Txantxiku Ikastolak eta Gaztelekuak parrokia aldera begiratzeko duten zatian. Garai horietan haragi-hornidura publikoa zenez, Udalak enkantera ateratzen zuen. 1869. inguruan liberalizatu egin zuten zerbitzu hori, eta harrezkero ez zen harategi publikorik egon. Plaza ez zen abere-hiltegiarentzako lekurik proposena, eta **San Juan kalean mataderixa berria jasotzea** erabaki zuten erreka ondoan **1870. urtean**, plazako eraikinean neskatielen eskola eratuz. Proiektua **Pantaleon Iradier** arkitektoarena izan zen, eta zuzendaritza-lanak, **Felipe Dugiols** jaunak egin zituen. 1871. urtean hasi zen funtzionamenduan, 1980ko hamarkadaren hasieran Zubillagako abere-hiltegia jarri arte mantendu zena.

BESTE ZENBAIT LANTOKI ETA TAILER

San Migel errota historikoaren eta geroagoko zerrategiaren berri eman genuen orain hurrengo batean. Dena den, inguru horretan egon ziren beste lantegi eta tailer txiki batzuk ere. Badakigu XVIII-XIX. gizaldietan ehule, **banastagin**, **ultzezin** eta errementariak aritu zirela auzoan. Horren lekuko dugu, esaterako, **Metalgua** izeneko etxea. Baina baita XX.ean ere. Pare bat gogoratuko dugu:

- **Madinatarren zume-lantegia.** Larrañako **Obiaga** baserriko jatorrikoa zen familia horrek San Migel errota ondoan eduki zuen tailerra 1921-1922 urtera arte. Orduan aldatu omen zuten Atzeko kalean Azkarraga deritzan etxera guk ezagutu genuen **zesterixia**. Oñatik zumadiak egon ziren, besteak beste, Buztinsolo, Altamira, Torrealde, Larraña eta Zañartun. Batzuk berandura arte.

- **Alemanen tailerra.** **Peter Gundel**, I. mundu-gerraren ondoren Oñatira iritsitako alemanak, Madinatarrak jardundako toki berean jarri zuen hezurrezko produktuak lantzeko enpresa txiki bat; oso

artetsua omen zen. Urte batzuk berandutxoago lehengusua zuen **Paul Kernstock** ekarri zuen hona. Dena den, Gundelek, Errepublikan denboran, lantegia itxi eta Argentinara alde egin zuen. Paulek, hemengo gerra ostean, aterkientzako eta bastoientzako kirtanak egin zituen lokal berean, bizitzera ere familia osoarekin etxe horretara joan zelarik.

Egia esan, San Juan kalearen **izaera majo aldatu da**. Aurreko ataletan aipatu genizkizuen Santa Ana komentuarien historia eta azkenaldian izan duen bilakaera: kanpotik neurri batean lehengo itxurari eutsi arren, zeregin eta zerbitzu desberdin askotarako erabili izan dira komentua eta bere inguruak, mojek Garagaltza auzoko egoitza berrira joan zirenetik. Komentu osteko ortu zabalean **Zubikoa kiroldedia** eraiki zen fase desberdinetan; eliza izandakoan **areto handi samarra** egokitu zen antzerki-emanaldi, hitzaldi eta abarretarako; lekaimeen bizilekua zena **ikastetxetarako moldatu** zuten; garai bateko sakristauen etxean eta aldekoan hainbat **bulego eta lokal publiko** egon dira eta daude: ertzainak, udaltzainak, bake-epaitegia, udal musika-bandaren entsegu-tokia, edota komunak.

Auzoko beste zenbait lekutan ere kokatzen dira gaur egun zerbitzu publiko garrantzitsuak: adibidez, **Pakeleku**, jubilatuen elkarte, kalearen hasieran eskuma aldetik; **Turismo-bulegoa**, San Migel errota eta zerra egondako orubean; **Osasun zentroa**, **Enterradoriena** izeneko etxearen aldamenean; edota **lurrazpiko aparkalekua** kiroldegipean.

ETXEAK ETA EUREN IZENAK

Eskumako aldean:

Parrokiako klaustroa baino metro batzuk aurrerago etxebizitzailara bat zegoen, duela gutxi, eraitsi gabe, aldakuntza sakona eduki duena, Pakeleku elkarte hor jarri denean. Honako hauek ziren lehenengo laurak:



San Juan Kalean botatako kale-baserriak: ezkerretik eskumara *Pekeñoa*, *Silbestrana*, *Metalgua* eta *Enterradoriana*.

* **Mailluna.** Tomas Ugarte, Oñatiko alkate ohia, eta emaztea bizi izan ziren bertan. **Etxea eraberritu egin zen 1926an** neoeuskal estiloan, orain daukan itxura hartuz; Tomas beraren proiektuaren arabera, agian, arlo horretan aditua eta aritua baitzen.

* **Ehuliana.** Jauregiatzotarrak izan ziren San Juan kaleko **ehuleak**, oihalak egiten zituztenak, alegia. Pantaleon izan zen azkena XX. mendearen hasieran.

* **Makatzena.** Oñate abizeneko familiaren bizilekua. Zuma-lanetan jardun zuten **zesterixan**. Otxueneko Pilar Odriozola ezaguna horra ezkondu zen.

* **Sindika.** Izen hori, seguru asko, garai batean Santa Anako komentuko **sindikoaren etxea** izan zelako edukiko zuen. Sindikoak mojentzako mandatari-lanak egiten zituen. Gerorago lehen aipatutako sakristauaren etxera aldatuko zuten. Gure denboran Ezkibel familiaren bizilekua zen. Etxe honen ertzeko kantoitiki abere-hiltegiara jaisten zen.

* **Mataderixia.** Arestian adierazi dugunez, abere-hiltegia 1870ean jaso zuten erreka ondoan; eta bere gainean 1948-1949ean, **Damian Lizaurren** proiektuarekin, **etxebizitzak** atondu zituzten **udal langileentzako**: alguazil, kale-garbitzaile, elektrikista eta abarrentzako. Abere-hiltegia Zubillagara eraman zenean, bota zuten eraikin osoa.

* **Denda barri.** Uneren batean **saltokiren bat** han kokatu zelako, horrela deitzen omen zitzaion mataderiaren aurrean, kalearen 12. zenbakian, jaso zuten hainbat pisutako etxeari. Aurretik ere egongo zen besteren bat, Lazarraga-Garibaitarren **armarri zahar-txikitxo**a geratu baitzaio aurrealdean. Familia asko bizi izan da bertan: Arrazola, Kernstock, Irizar, Altzelai eta Ordorikatarrak, besteak beste.

* Mendeetan zehar lehenengo errota eta gero aroztegia nahiz zerrategia eduki zuen eraikin zaharra (San Juan kale 14an), duela urte gutxi eraitsi zen etxebizitza berriak egin eta **Turismo-bulegoa** jartzeko.

* **Alemanena.** Ikusi dugu gorago San Juan kaleko 16an bi familia desberdin bizi izan zirela: Gundeltarrena eta Kernstocktarrena. Hortik dator, jakina, etxeari eman ohi zaion izena. Hau ere zeharo eraberritu da azkenaldian barrutik; antzinako tailerrak desagertu dira; kanpoko aldetik **arku konopial polita** duen atea mantendu da.

* **Gogorduena.** Eskuin aldetik azkena zen. Bi familia ezagutu genituen bertan: Kortabariarrak lehenengoan eta Elortzatarrek bigarrenean: etxepeko sotoan **iltzeak egiteko tailertxo** bat kokatu zen. Orain etxe berria aurkitzen da orube horretan.

* **Goizeko Izarra.** San Juan kaletik apartetxo gelditzen bazen ere, aipatzekoa da Julian Arkauz indianoak jasoaerazi zuen horrela zerritzan **jauregitxo liraina**, bere lorategi eta zuhaitz ederrekin. Orain dela urte batzuk bota zen bi etxe-multzo egiteko.

Ezkerreko aldean:

Santa Anako komentuen ondoren, elkarri erantsitako **hiru kale-baserri** zeuden:

* **Otxuena.** Aiastuitarren eta Odriozolatarren bizilekua.

* **Azpeittixena.** Jatorria herri hartan zuten Dorronsorotarrena. Aita Roman **banastagina** zen.

* **Kirriñena.** Urtazatarrena. Hiru **etxe-izen horiek ondo ezagunak** eta zabalduak dira Oñatin. Eraikina aurretik jatorrizko neurritan mantendu bada ere, sakon eraberritu dute barrutik eta ostetik.

Kirriñenaren aldamenenean **plazatxo bat** zegoen eta handik pasatzen zen errotarako **malatua**, puxetarri eta guzti. Barrurago ere baziren beste **kale-baserri** batzuk:

* **Pekeñona.** Bikuñatarrak bizi ziren bertan.

* **Enterradoriana.** Muruatarrena. **Goiko Otxuena** ere esaten zitzaion, baina etxe horretako aita, Juan Murua, urte askoan herriko **ehorzlea** izan zelako, ezagunago zen lehenengo izendapena.

* **Txinpartana.** Enterradoriaren ondoan.

* **Silbestrana.** Erostarbe-Etxeberria familiarena. Harri eta adreiluzko **egitura zahar, bitxia** zeukan; 1970ko hamarkadan eraitsi zuten. Etxekoandrea deitzen zen Silbestra.

* Silbestrenen baserriari erantsita hiru pisutako etxe berria eraiki zuten Mariano Elortza igeltseroak gerra ostean.

* **Arrazola abadiarena.** Aurrekoaren ondoren, plazatxoak kalearekin egiten zuen ertzean. Jose Luis Arrazola parrokiako apaizarena zen.

* **Metalgua.** Dorronsoratarrek hauek ere. Kale-baserri honek harlanduz egindako **puntu erdiko arku**a zeukan atean eta **inskripzioa giltzarrian**. Zeharo eraberritu dituzte azken bi hauek ere.

Kalearen amaieran **Aingeru Guardako santutxua** dugu, herriko bidegurutzetako klasiko batean eta Garagaltzako Etxeberrialde baserriaren aurrean.

Etxebizitza edo lokal
bat saldu nahi duzu?

ETXIAN
Inmobiliaria

Tel.: 943 71 61 60
Mug.: 610 381 244
www.etxian.net
Etxian f

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com